

## Miresmen baten historia

Jose Angel Ascunce

*Aiurri*, Zenbaki berezia 1, 1997: 46-47.

Zaila egiten zait zehaztea, ia ezinezkoa, noiz eta nola egin nuen topo lehen aldiz Martin Ugaldere mundu pertsonal eta kulturalarekin. Pentsatzen dut, suposizio hutsa da, 70eko hamarkadako hasieran behar zuela izan, Deustuko Unibertsitatean Romanicas karrera egiten ari nintzela, artean Martin bere lehen erbestaldi venezuelarretik itzuli eta Iparraldeko bigarrenaren atarian zela. Haiek tentsio urtetzat ditut gogoan baina baita ere ilusio urtetzat ere. Elkarren kontrako indar soziopolitikoaren egoera horretan kokatzen zen Martin Ugalde, erreferentzia nahitaezkoa zena askatasun eta demokrazia mundu berriekin amesten zuten ikasle gazte eta iluso haientzat..

Bigarren urratsa izan zen idazle gipuzkoarraren bibliografian giltzarri diren bi obren irakurketa: *Hablando con los vascos* eta, zertxobait beranduago, *Cuentos de inmigrantes*. Bi liburu horien orrien bitartez aurkitu nuen gizon baten sentsibiltate, herri honetako kultura, artea eta politikako zenbait pertsonai esanguratsuengana zein inmigrazio venezuelarreko pertsonaia txiro eta zoritxarreko, baina beti gizatiarregana, sentiberatasun, maitasun eta profesionaltasun berarekin gerturatzen zena. Datu sinple horrek agerian uzten digu Martin Ugaldere ezaugarri nagusietariko bat: bere humanismo sakoneko eta bizia, giza duintasunaren espresio bezala.

Hirugarren gerturatze maila bere bizitza pertsonalaren erdua izan zen, –erbesteak, entregak, enfrontamentuak, eta abar– 70eko hamarkadako hasieran gazte ginen haientzat izugarri erakargarria egiten zitzaiguna: bere izakeraren koherentzia eta bere irizpideen askatasuna. Askokin ari izan zatekeen elkarlanean, baina ez zen itsu-itsuan promesa eta oparien atzetik joan, horiek bere printzipioen kontrakoak zirenean. Horregatik, beti izan da eta da hain mirestua eta maitatua Martin Ugalde gizona.

Azkenik, 80eko hamarkadaren amaieran, Deustuko Unibertsitatean bertan irakasle nintzelarik, euskal erbesteari buruzko jardunaldi batzuetan izan nuen Martin Ugalderekin aurrez aurre aritzeko aukera. Irakurketa eta erreferentzietatik ateratako apreziazio haiek egiagoak bihurtu ziren, erreagoak ziren eta. Topaketa eta elkarriketa haietatik, euskal erbestearen gaineko proiektu bateratuak sortu ziren. Maiz ikustearen poderioz adiskidetasun ona sortu zen gure artean, gaur egun pertsonarekiko zein idazlearekiko sentitzen dudana miresmenaren lekuko.

Ahal dudana neurrian, ikerketa kritiko eta agerkarien bitartez, saiatzen naiz bere narrazio lanak ezagutarazten, batez ere gazteleraz idatzitakoa. Proiektu horretatik sortu ziren *Mientras tanto fue creciendo la ciudad* (Donostia, 1992), *Cuentos I: De la nueva tierra y los inmigrantes* (Bartzelona, 1992) eta *Cuentos II: De la inmensa soledad del hombre* (Bartzelona, 1992).

Hala eta guztiz ere, honekin ez da laguntasunak eta miresmenak agintzen duen zorra kitatuta geratzen. Martin Ugalde lagun on bat baino ez balitz, esan liteke egin dudana aski

izan dela. Baina, Martin Ugalde idazle ona da eta kontulari ezinhobea, gaur egungo narraziogintzan leku nagusia izatea merezi duena. Lagun bezala tratu ona merezi badu, idazle bezala konpromezu serio bat eskatzen du geure burua kritikotzat izateaz gain, bere laguntzat dugunokiko. Horrek izan behar du erronka eta horrek adiskidetasun eta miresmenaren promesa.

(Erredakzioan itzulia).